

Zubigile

[Egile ezezaguna]

Aiurri, Zenbaki berezia 1, 1997: 56-62.

EAJn hazia, alderdi horretan egin zituen bere bizitzako urterik gehienak, harik eta alderdia zatitu eta EAn lerratuta geratu zen arte. Baina sigla jakin batzuen baina herriaren eta hizkuntzaren militante izan da Martin Ugalde politikaria. Horien alde edonorekin borrokatu du, gehienetan, batzuen eta besteen arteko zubi eginez gainera.

Askotan kontatu izan du Martin Ugaldek, umetan, batzokia zutela eliza eta Gabino Arana santua. Giro horretantxe hazi zen. Aitona jeltzalea zuen, aita EAJko zinegotzia eta berak ere alderdi horrexen dotrina jaso zuen txiki-txikitandik: "Jaungoikoa eta lege zarra".

Baina gerra lehertu eta familia batean eta bestean banatuta geratu zen arte Martini ez zitzaion kontzientzia politikorik piztu. Indar faxistek bere herriaren eta kulturaren kontra heriotzaz erasotzen zutela konturatu zenean jabetu zen kontzientzia horretaz, seguruenera. Nemesio Fernandez, dantzari txikietan irakasle zuena, esaterako, horrexegatik hil zuten, dantza erakusten zuelako hain zuzen ere. Beste askok eta askok ere gerratik ihesi egin ezinda galdu zuten bizia.

Ugaldetarrek lortu zuten Andoain utzi eta babesaren lortzea. Pello Ugalde, Martinen aita, zinegotzia zen Udaletxean gerra lehertu zen garaian. Ihesi joatea beste erremediorik ez zuten izan, beraz. Herriaren aurrean hartu zuen konpromezuari leial izan behar zitzaioala argi izan zuen beti Pellok. Bilbon zirela hartu behar izan zuen bere gain Andoingo Udaleko ordezkari eta, zailtasunak zailtasun, gerra amaitu artean eutsi ziori ardura horri: errenditu ez zen udal bakarretarikoa izan zen Andoingoa.

Pello Venezuelara erbesteratu eta Martin Andoinera itzuli zenean askok ekarri zioten gogora bera abertzale eta separatista baten semea zela, abertzale, separatista eta gorri batean semea. Gerra osteko urte ilunak ziren; askok gurutzatzen zuten kalea bera ikustearekin batera. Ez zen gorrotoa, beldurra zen gehiago.

Venezuelako Eusko Gaztedi

Ordurako, baina, Martinek ondo barneratua zuen aitaren pentsakera, Venezuelara iritsi zenean zabaltzen saiatu zena. Caracasko Euskal Etxeko gainontzeko gazteekin batera Eusko Gaztedi sortu zuten. Euskal Herriko EGRekin zerikusirik ez zuen arren, hark ere kutsu politikoa zuen erabat. Venezuelen ziren euskal gazteen artean sorterriko ohitura eta kultura bultzatzen saiatzen ziren, kultura egitea politika egitea zen garai hartan.

Ondo gogoan zituzten gazte haiek Sabino Aranaren esandakoak: "No de los hombres de cabeza nevada y corazón yerto ha de esperar la patria su acción restauradora, sino precisamente del ardiente corazón y animosa voluntad de los jóvenes". Hitz horiei

jarraiki, gaztetasunaren indarra aberriaren alde bildu nahi izan zuen Eusko Gaztedik, eta era berean, erresistentzian lan egiten ari zirenei laguntza eskaini. "Demostremos, pues, con hechos y no con palabras, que podemos ser útiles a la patria, pero no olvidemos que nada se consigue con sacrificio y esta será nuestra mejor esperanza para el triunfo final en Jaungoikoa eta Lagi Zarra", utzi zuten idatzia Eusko Gaztedik argitaratzen zuen izen bereko hilabetekariaren lehen alean.

Eusko Gaztediren hasiera hartan Martinek jada utzi zuen gerora bere pentsakeraren ezaugarriak bereizgarrietarikoaren arrastoa, tolerantziarena, hain zuzen. Iragana hautsita, gizonezkoentzat baino ez zen elkartea elkarte misto bihurtzeko urratsak eman zituen, tabu zaharren kontra gogor eginda.

EAJko ordezkari

Txikitako Andoainen batzokia zuten moduan, Caracasen Euskal Etxea zuten sabindarren eliza. Baina ordurako, konpromezu politikoa sendoagoa zen. Hala, alderdian ardurak hartzea egokitu zitzaion Martini, harik eta EAJko Venezuelako ordezkari bihurtu zen arte.

Kargu horretan zelarik egokitu zitzaion, behin baino gehiagotan, Jose Antonio Agirre lehendakariak herrialde hartara egiten zituen bidaietan itsumutil izatea.

Agirre lehendakaria hil zenean, 1960 urtean, ofizialki erantzun behar izan zien venezuelarrek bidalitako dolumin ugari. Martin bera eta herrialde hartan ziren gainontzeko euskaldunak asko samindu zituen gertakaria izan zen hura.

Itzulera konprometitua

Herriarekiko zuen konpromezuak eta leialtasunak bultzatu zuen Martin Venezuelan lortutako guztia atzean utzita Euskal Herrira itzultzea. Ondo kostata hartutako erabakia izan zen eta ondo kostatu zitzaion, baita ere, jaioterrira bueltatzeko modua lortzea. Venezuelan izan zuen jardun politikoa ezaguna zuten artean agintean ziren indar faxistek eta ezin estatu espainiarrean sartu. Emaztea eta seme-alabak bidali zituen lehenik; bi urte luze egin zituen berak Venezuelan, Anamari emazteak Madrilgo enbaxadan beharrezko baimenak lortu zituen arte.

Euskal Herrira itzultzeko baimena lortzearekin batera jaso zuen Martinek politikagintzan aritzeko debekua. "Ezertan ez sartzeko" mehatxua egin zioten, bestela berriz ere kanpora bidaliko zutela.

Baina herriarekiko konpromezua hori dena baino indartsuagoa zen. Ajuriagerra zenak alderdirako behar zutela esan zionean, duda egin zuen familiagatik, baina Anamariren onspena lortuta aurrera egitea erabaki zuen, kontzientziak hala eskatzen ziolako.

Agirrerekin urrutitik eta tartean behin egokitu zitzaion lan egitea; Leizaolarekin, aldiz, ondo-ondoan eta etenik gabe aritu zen politikagintzan. Klandestinitateko Eusko Jaurlaritzan EAJko ordezkaria izan zen bera.

Jarrera kritikoa beti

Ugaldek betidanik berezkoa izan duen kritikotasunak arazo bat baino gehiago sorrarazi zizkion garai hartan. Berak aitortua da alderdian ez zirela berataz fio, kontzientzia kritiko horrek bultzatuta, jarrera ofizialen kontrako iritziak defenditzen baitzituen haietaz sinestuta zegoenean. Inkonformista zen eta alderdiarentzat arriskutsua beraz.

Behin baino gehiagotan esan eta batez ere idatzi du Martinek "ajola gutxi kontsignak" esaldi labur bezain sakona. Ez baita alderdi edo pentsamolde baten uztarriean babestu eta isilik geratu. Aita bezala, bera ere leial izan baita, baina alderdi politikoari beharrezko ideiei: herriari eta hizkuntzari. Gorra Aulestiak esana da Martin Ugalde bokazioz izan dela literatur idazle eta kazetari eta "abertzaletasunak beharturik politikari".

Hori bera argi izan du betidanik Martinek: bere bidea ez zen politika. Horregaitik, alderdian belaunaldi berriak sartzen hasi zirenean erretiratzea erabaki zuen, bere berezko bidera joatea. Jaso zituen harrez gero senadore eta diputatu postuak betetzeko eskaintzak baina ez zuten konbentzitu.

Zatiketaren mina

70eko hamarkadan politikatik erretiratzea erabaki zuen eta 80ekoan etsi. Izugarri gogorra egin zitzaion EAJren haustura, izugarri gogorra hainbeste urtetako militantzia utzi eta EAra biltzea. Zatiketak mindua utzi zion barrua eta mina sentitzen du oraindik ere ezinulertu horiek direla eta.

Baina bi alderdi horien arteko zatiketa horrek ezezik, euskaldun guztion arteko haserreak, gorrotoak eta ezinikusiak ematen dio barruan min: intolerantziak.

Ezin ulertu dezake nolatan ez garen guztiok batzeko gai helburu berberen alde, euskararen alde esate baterako.

Tolerantziaren bidetik, batzuen eta besteen arteko zubi lana egitea egokitu zaio Martini askotan. Ahalegin horretan erre ditu gogoak. Eta nekatuta dago, ongi baitaki zubirik gabe ezingo dela herririk eraiki.